

WiZink eperako gordailuen kontratu aurreko informazioa

Oharra: dokumentu honetan nabarmendutako informazioa bereziki garrantzitsua da

Likidezia-alerta

Inbertitutako printzipala oso-osorik edo zati batean itzuli, erreskatatu edo aurretiaz itzultzeko prozesuak komisioak edo zigorrak izan ditzake.

Berme-funtsa

WiZink Bank SAU erakundea urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako Kreditu Erakundeek Gordailuak Bermatzeko Funtsean atxikita dago. Diru-gordailuetarako, bermatutako gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da gordailugileko kreditu-erakunde bakoitzean.

Informazio hau xede komertzialarekin ematen du WiZink Bank SAU erakundeak [aurrerantzean, Erakundea], kontsumitzaileentzako finantza-zerbitzuak urrutitik komertzializatzeari buruzko uztailaren 11ko 22/2007 Legea eta Banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguen ematearen erantzukizunari buruzko Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra betez. Halaber, nabarmendutako informazioa bereziki garrantzitsua da hartzailearentzat.

Bezeroak eskubidea izango du, kontratu-harremanaren edozein unetan, kontratuaren eta produktu honen kontratu aurreko informazioaren kopia bat eskatzeko.

ARRISKU-ADIERAZLEA

1 / 6

Zenbaki honek produktuaren arriskua adierazten du: 1 / 6 arrisku txikiena da, eta, 6 / 6, arrisku handiena.

Gordailuzainaren nortasuna eta harremanetarako xehetasunak

Erakundearen datuak: WiZink Bank SAU.

Helbidea: C/ Ulises 16-18, 28043 Madrid

Telefono-zenbakia: 91 175 08 69

Helbide elektronikoa: contacto@wizink.es www.wizink.es

Zerbitzuak ematean, Erakundea Espainiako Bankuaren baimenaren eta gainbegiratzearen mende egongo da, haren erregistroetan baitago inskribatuta 0229 zenbakiarekin.

Produktuaren ezaugarri nagusien deskribapena

- Gordailuaren zenbatekoa:
 - bezero berrientzat, gutxienez 5.000€ eta gehienez 250.000€.
 - bezero zaharrentzat, gutxienez 5.000€ eta gehienez 1.000.000€.
- **Epea: 12, 18, 25 edo 36 hilabete.** Adostutako epea igaro ondoren Bankuak ordaindutako printzipala itzuliko dizu, adostutako baldintzetako ordainsariaz gain.
- **Muga-egunean automatikoki berrituko da: muga-eguna iristean, gordailua berritu egingo da Bankuak ezarritako interes-tasaren arabera, eta beharrezko aurrerapenarekin jakinaraziko du. Epea eta zenbatekoa berberak izango dira, baita likidazioen aldizkakotasuna ere,** betiere aldeetako batek ez badu berritzea salatzen eta hura kitatzeko eskatzen.

- Interesen likidazioa: hiruhilekoan behin.
- Interes-tasa:
 - %2,967 TIN (12 hilabete)
 - %2,722 TIN (18 hilabete)
 - %2,280 TIN (25 hilabete)
 - %2,477 TIN (36 hilabete)
- **UTB:**
 - **%3,00 UTB (12 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,967 [%3,00 UTB] 12 hilabeterako aplikagarria. Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroak 30.000 euroko gordailua kontratatu du 12 hilabeteko eperako, eta interesak hiruhilekoan behin likidatzen dira: gordailua iraungitzean bezeroak 890,10 euroko [interes gordinak] edo 720,98 euroko [interes garbiak] ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 12 hilabete 365 egun direla, interes-tasa hauekin: %2,967 ITN.
 - **%2,75 UTB (18 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,722 [%2,75 UTB] 18 hilabeterako aplikagarria. Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroak 30.000 euroko gordailua kontratatu du 18 hilabeteko eperako, eta interesak hiruhilekoan behin likidatzen dira: gordailua iraungitzean bezeroak 1.223,78 euroko [interes gordinak] edo 991,26 euroko [interes garbiak] ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 18 hilabete 547 egun direla, interes-tasa hauekin: %2,967 ITN.
 - **%2,30 UTB (25 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,280 [%2,30 UTB] 25 hilabeterako aplikagarria. Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroak 30.000 euroko gordailua kontratatu du 25 hilabeteko eperako, eta interesak hiruhilekoan behin likidatzen dira: gordailua iraungitzean bezeroak 1.426,09 euroko [interes gordinak] edo 1.155,14 euroko [interes garbiak] ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 25 hilabete 761 egun direla, interes-tasa hauekin: %2,280 ITN.
 - **%2,50 UTB (36 hilabete):** Urteko interes-tasa nominala %2,477 [%2,50 UTB] 36 hilabeterako aplikagarria. Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroak 30.000 euroko gordailua kontratatu du 36 hilabeteko eperako, eta interesak hiruhilekoan behin likidatzen dira: gordailua iraungitzean bezeroak 2.229,30 euroko [interes gordinak] edo 1.805,73 euroko [interes garbiak] ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 36 hilabete 1.095 egun direla, interes-tasa hauekin: %2,477 ITN.
- **Gordailu hori kontratazeko aurrezki-kontu bat ireki beharko da wizink.es webgunean;** bertan ez dira aplikatzen administrazio- edo mantentze-gastu eta -komisioak.
- Titularrak: titular bat baino gehiago badaude, xedapena eta erantzukizuna solidarioak izango dira. Gordailua kontratatu ondoren, hura kontratatu eta hurrengo 15 egunetan zehar soilik onartuko dira titularkideak. Gordailuaren titulartasunak bat egin beharko du beti aurrezki-kontuarenarekin

- **Kitapen aurreratua: erabateko kitapena onartzen da. Aurrezki-kontuen titularren barneko intsuldaketen kasuan, edozein unetan, eta, kanpoko intsuldaketen kasuan, kontrataziotik 60 egun igaro ondoren. Kitapen aurreratuaren kasuan soilik gordailuaren zenbateko nagusia ordainduko da, eta, zigor-kontzeptuan, Bankuak ordura arte gordailuagatik jasotako interes guztiak kenduko ditu;** horretarako, Titularrak baimena ematen dio Bankuari haren gordailuarekin lotutako aurrezki-kontuan aurretik adierazitako interesak zorduntzeko, gordailua kitatu arte ordaindu direnak, edo interesen kontzeptuan ordaindutako zenbatekoa konpentsatzeko gordailuaren printzipalarekin. Titularrari jakinarazi zaionez, kitapen aurreratuaren kasuan, zerga-ondorioetarako dagozkion errendimenduak egotzi eta atxikipenak jasanaraziko zaizkiola.

Aurrezki-kontua lotuta dago eperako gordailuarekin; beraz, hura kontratatutako gordailuaren iraupena amaitu aurretik kitatu bada, automatikoki kitatuko da. Kasu horretan, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da; hau da, soilik aurretik adierazitako baldintzetan ordaindutako zenbateko nagusia ordainduko da. Gordailua kitatzeak ez dakar aurrezki-kontua kitatzea, eta kontratu honetan aurreikusitakoarekin bat arautuko da kontu hori. Gordailua eteteko eta zenbatekoa itzultzeko, indarreko legeriak une bakoitzean adierazten dituen baldintzak eskatuko dira.

- Pertsona fisikoentzako, egoiliarrentzako eta adinez nagusientzako eskaintza; www.wizink.es webgunean kontrata daiteke.

Informazio gehigarria, finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatuz gero

Atzera egiteko eskubidea erabiltzea

Titularrak kontratuetan atzera egin ahalko du horiek sinatu eta hurrengo hamalau eguneko epean. Xede horietarako, sinadura-datatzat jotzen da titularrek kontratuak eta eragiketak sinatu edo formalizatzen dituzten eguna. Atzera egiteko eskubidea, erakundeari jakinarazitako helbide elektronikotik atencionalcliente@wizink.es helbidera bidalitako mezu elektronikoz gauzatu ahal izango da. Data jarrita duen eta dauden titular guztiek sinatu duten dokumentua erantsi beharko da, honako hauek adierazita: izena(k), abizena(k), IFZ eta aurrezki kontratuaren(en) edo produktuaren(en) erreferentzia. Transferitu beharreko saldorik egonez gero, bai eta xede-kontuaren titulartasunaren egiaztagiria ere. Behin Titularrak atzera egitean, Bankuak egoera berrezarriko du, kontratua sinatu izan ez balitz bezala; beraz, Bankuak Titularraren eskutik jaso dituen zenbatekoak itzuliko ditu, eta Titularrari ordainduko dizkio gordailuarekin lotutako kontuan.

Legeria eta jurisdikzio aplikagarriak

Kontratuari eta hartatik eratorritako harremani Espainiako legeria aplikatuko zaie. Aldeak, foru propioari uko eginez, Titularraren egoitzako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira. Eperako gordailuan bezero titular bat baino gehiago badaude, horietako edozeinen egoitzako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena, Erakundeak aukeratuta.

Hizkuntza-araubidea

Kontratuaren informazioa eta baldintzak gaztelaniaz emango dira. Baimena ematen badiguzu, kontratuak irauten duen bitartean gaztelaniaz komunikatuko gara zurekin.

Erreklamatzeko bitartekoei buruzko informazioa

Eskatzaileek eskura dute Bezeroentzako Arreta Zerbitzua, kexak eta erreklamazioak kudeatzeko:

Servicio de Atención al Cliente.

WiZink Bank, SAU

Calle Ulises 16-18

28043 (Madrid)

Helbide elektronikoa: reclamaciones@wizink.es

Ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzko kexak eta erreklamazioak ebazteko gehieneko epea 15 egun baliodunekoa da. Erreklamazioa ez bada ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzkoa, epea hilabetekoa izango da erreklamatzailea Europar Batasunean bizi den kontsumitzailea bada, eta 2 hilabetekoa Europar Batasunean bizi ez den kontsumitzailea bada edo kontsumitzailea ez bada. Epea igaro eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuak ebazpenik eman ez badu, edo erabakiarekin ados ez bazaude, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura jo dezakezu [calle Alcalá, 42-28014 Madrid].

Eperako gordailuaren

Espainian bizi direnentzat (lurralde erkidea), sortutako interesak aurrezkiaren zerga-oinarrian sartzen dira, eta hiru zati hauen arabera ordaintzen da:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	19%
6.000,01etik 50.000,00ra arte	21%
De 50.000,01etik aurrera	23%

Euskadin bizi direnentzat (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia):

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
2.500,00ra arte	20%
2.500,01etik 10.000,00ra arte	21%
10.000,01etik 15.000,00ra arte	22%
15.000,01etik 30.000,00ra arte	23%
30.000,01etik aurrera	25%

Nafarroan bizi direnentzat:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	20%
6.000,01etik 10.000,00ra arte	22%
10.000,01etik 15.000,00ra arte	24%
15.000,01etik aurrera	26%

Ordaindutako interesei PFEZren % 19ko atxikipena aplikatu zaie lurralde erkidean, Euskadin eta Nafarroan.

Urrutitik kontratatze-prozesua

Kontratu honetako produktuen kontratazio-prozesua urrutetik egingo da. Kontratazio-modu horren berezitasunen eta eragiketarekin lotutako identifikazio-sistemen mugez ondorioz, prozesu hori produktuaren titularrek edo titularkideek egin beharko dute solidaritate-araubidean, eta, beraz, ez dira onartuko baimenduak, ahaldunak eta ordezkari legalak. Prozesuan zehar bezeroari adieraziko zaizkio, modu argi eta zehatzean, kontratua sinatzeko jarraitu beharreko izapide guztiak.

Zehazki, hau egin beharko du:

1. Aurretiazko informazioa ezagutu eta beharrezko aurrerapenarekin adieraztea, eta haren esku jartzen diren kontratuaren termino eta baldintzak ezagutu eta onartzea.
2. Eskatzen zaion informazioa osatzea.
3. Adostutako baldintzak onartzea, eta, horretarako, kontratua sinatzea.

Emandako informazioaren baliozkotasun-epea

Erakundeak edozein unetan aldatu ahal izango ditu aurretiazko informazio honetan jasotako baldintzak, eta baldintza horiek, bereziki ekonomikoak, ez dira bezeroari zuzendutako eskaintza lotesle bat, legearen arabera nahitaezkoak diren kasuetan izan ezik. Beraz, aurretiazko informazioan eta kontratuan jasotako baldintzak ez badatoz bat, azken horiek gailenduko dira.

WiZink aurrezki-kontuaren kontratu aurreko informazioa

Oharra: dokumentu honetan nabarmendutako informazioa bereziki garrantzitsua da

Berme-funtsa

WiZink Bank SAU erakundea urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsean atxikita dago. Diru-gordailuetarako, kreditu-erakunde bakoitzean bermatutako gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da gordailugileko.

ARRISKU-ADIERAZLEA

1 / 6

Zenbaki honek produktuaren arriskua adierazten du: 1 / 6 arrisku txikiena da, eta, 6 / 6, arrisku handiena.

Informazio hau xede komertzialarekin ematen du WiZink Bank SAU erakundeak [aurrerantzean, Erakundea], kontsumitzaileentzako finantza-zerbitzuak urrutitik komertzializatzeari buruzko uztailaren 11ko 22/2007 Legea eta Banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguen ematearen erantzukizunari buruzko Espainiako Bankuaren ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra betez. Halaber, nabarmendutako informazioa bereziki garrantzitsua da hartzailearentzat.

Bezeroak eskubidea izango du, kontratu-harremanaren edozein unetan, kontratuaren eta produktu honen kontratu aurreko informazioaren kopia bat eskatzeko.

Produktua

Pertsona fisikoentzako, egoiliarrentzako eta adinez nagusientzako ageriko kontua; www.wizink.es webgunean kontrata daiteke. Dokumentu honek zure informazio-eskaerari erantzuten dio, eta WiZink Bank SAUk ez du kontu bat irekitzeko betebeharririk izango. Jasotako informazioa orientagarria baino ez da, eta merkatuaren egungo baldintzetan oinarrituta egin da.

Erakundea

WiZink Bank SAU

Helbidea: C/ Ulises 16-18, 28043, Madrid

Telefono-zenbakia: 91 175 08 69 Helbide elektronikoa: contacto@wizink.es www.wizink.es

Zerbitzuak ematean, Erakundea Espainiako Bankuaren baimenaren eta gainbegiratzearen mende egongo da, haren erregistroetan baitago inskribatuta 0229 zenbakiarekin.

Kontuaren funtzionamendua

- WiZink aurrezki-kontuak ez ditu onartzen:
 - Ordainagiriak helbideratzeak
 - Kontuko zorpekoak
 - Txartelak edo ordaintzeko beste modu batzuk helbideratzeak, baldin eta WiZink aurrezpen-kontua jasotzen badute produktu edo zerbitzu horien kargu- edo zordunketa-kontu gisa.
 - Txartelen edo beste ordainketa-tresna batzuen jaulkipena

- Lotuta dauka Kanal Anitzeko Kontratua. Horrek, Interneteko Bankaren, Telefono bidezko Bankaren Telefonikoaren eta Banka Mugikorraren zerbitzuaren bidez, bezeroari aukera ematen dio une bakoitzean eskuragarri dauden kontsulta eta eragiketa guztiak egiteko, lotutako kontratuei dagokienez, eta, hala badagokio, Wizink Bank SAU erakundearekin kontratu berriak sinatzeko.
- Titularrak saldoa eduki ahal izango du WiZink aurrezki-kontuan transferentzien bidez. Horretarako, Bankuak autentifikazioa indartzen duten elementu jakinak sartzeko eskatu ahalko dio, adibidez PIN kodea edo SMS bidez bidalitako kode espezifikoak. Transferentzia-aginduak Bankuak jaso ondoren prozesatuko dira. Bankuak agindu bat egun baliogabe batean jasotzen bada, hurrengo egun baliodunean joko da jasotzat. Halaber, agindua Bankuak egun baliodun bakoitzerako finkatutako muga-ordua baino beranduago jasotzen bada, hurrengo egun baliodunean joko da jasotzat. Aginduak jaso eta hurrengo 24 orduetan egikarrituko dira.
- Bankuak, justifikatu gabeko atzerapenik gabe, egin ez diren edo oker egin diren ordainketa-eragiketen zenbatekoa itzuliko dio bezeroari, eta, hala badagokio, kontuko saldoa berrezarriko du, eragiketa okerra gertatu izan ez balitz bezala.
- Bankuak baimendu gabeko edo oker egindako eragiketak zuzenduko ditu, betiere bezeroak Bankuari jakinarazi badizkio justifikatu gabeko atzerapenik gabe, eta, edonola ere, gehienez ere hamahiru hilabeteko epean eragiketaren zordunketa-datatik. Bankuak berehala itzuliko dio bezeroari baimendu gabeko eragiketaren zenbatekoa, Bankuak eragiketa hauteman duen edo haren jakinarazpena jaso duen egunaren hurrengo egun balioduna amaitu aurretik [iruzur-kasuetan izan ezik].
- Bankuak bezeroari jakinaraziko dio, une bakoitzean kontratuan ezarritako kanalen bidez, iruzur-susmoak, benetako iruzurra edo kontuaren segurtasunerako mehatxuak hautematen baditu. Kasu horietan, Bankuak kontua blokeatu ahal izango du eta bezeroari jakinaraziko dio. Blokeo hori indarrean egongo da eragin zuten arrazoiek dirauten bitartean.
- Onuradunak abiarazitako eragiketen kasuan, bezeroak eskubidea izango du, zordunketa-data baino beranduago ez den bitartean, Bankuak egindako eragiketei dagokien zenbateko osoa itzultzeko, betiere (i) bezeroaren baimenak ez bazuen zehazten, eman zen unean, ordainketa-eragiketaren zenbateko zehatza, eta (ii) zenbateko horrek bezeroak, aurreko gastu-irizpideak eta kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, arrazoiz aurreikusi zuena gainditzen bada. Bezeroak itzultze hori eskatzeko eskubidea izango du zortzi asteko epean, kontuko zorduntze-datatik zenbatzen hasita. Kontuak titular gehigarriak onartzen ditu. Titular bat baino gehiago badaude erabiltzeko modua eta erantzukizuna solidarioak izango dira. Gordailu eta aurrezki-kontua kontratatu eta hurrengo hamabost egunetan baino ez da onartuko titularkideak gehitzea, eta ezinbesteko baldintza izango da bi kontratuen titulartasunek bat egitea.
- Bezeroak bere eragiketei buruzko informazioa kontsultatu ahalko du WiZink online zerbitzuan. Bankuaren eta bezeroaren arteko komunikazioak Bankuaren webgune pribatuaren, posta elektronikoaren edo telefonoaren bidez egingo dira, une bakoitzean aplikagarria den araudian aurreikusitako maiztasunarekin eta moduan. Ondorioz, Bankuak bezeroaren esku jarriko du, hiler, haren aurrezki-kontuan egondako mugimendu guztien laburpena, WiZink Online zerbitzuaren bidez, eta bezeroari jakinaraziko dio, mezu elektroniko baten edo beste edozein bitarteko telematikoren bidez, informazio hori eskuragarri dagoela. Halaber, aldeztu aurretik eta banan-banan jakinaraziko dio bezeroari aurrezki-kontuaren kontratuaren aldaketa oro, aldaketa horiek indarrean jarri baino lehen, legeak ezarritako aurrerapenarekin. Bankuak proposatutako aldaketa oro bezeroari jakinaraziko zaio bi [2] hilabetetik gorako aurrerapenarekin, proposamenaren aplikazio-datarik dagokionez.

Kontratuaren iraupena

Mugagabea. Bankuak kontratuaren baldintzak suntsiarazi edo aldatu ahalko ditu, proposatutako aldaketa indarrean sartzen den edo suntsiarazpena eraginkorra den eguna baino bi hilabete lehenago jakinarazita..

Bezeroa ez badago ados jakinarazitako baldintza berriekin, kontratua suntsiarazi ahalko du horiek indarrean sartu aurretik, inolako kosturik gabe.

Bezeroak aldaketak onartu dituela ulertuko da, baldin eta aldaketak indarrean sartu aurretik ez badio Bankuari jakinarazten onartu ez dituela.

Kontuaren ordainsaria

- Urteko interes nominala %0,995 (0,01 eurotik aurrera).
- **UTB: %1,00.** Produktuaren adibidea, kasu honetan oinarrituta: bezeroaren kontuak 15.000 euroko batez besteko saldoa du 12 hilabeteko epean zehar, eta interesak hileroko likidatzen dira. hileroko interesen likidazioarekin. Epearen amaieran bezeroak 149,25 euroko (interes gordinak) edo 120,89 euroko (interes garbiak) ordainsaria jasoko du. Kalkulu hori egiteko aintzat hartu da 12 hilabete 365 egun direla, interes-tasa hauekin: %0,995 ITN eta %1,00 UTB.
- Likidazio-aldizkakotasuna hilerokoa da.
- Kontuaren likidazioa egiteko, batez besteko saldo hartzekoduna zehaztuko da. Horretarako, balio-dataren irizpidea erabiliko da, likidatu beharreko epean mantendutako saldo hartzekodun guztiak kontuan hartuta.

Komisioak

Zerbitzua	Komisioa
Kontua mantentzea	0€
Transferentzia	0€ Soilik eurotan egindako transferentziak onartuko dira, bai igorritakoen eta bai jasotakoen kasuan, SEPA esparru geografikoaren eta aplikazio-esparruaren barruan (barne hartzen ditu EBko estatu kideak eta une bakoitzean sistema horretara atxikitako herrialdeak). Jasotako lehen transferentziaren kasuan, Monako eta San Marino salbuetsiko dira.
Laburpenaren kopia	Formatu elektronikoa 0€
	Paperezko formatuan 3€ per document

Banku-kontuen lekualdaketa

Bezeroak bere aurrezki-kontua lekualda dezake, Oinarrizko ordainketa-kontuei, ordainketa-kontuen lekualdatzeari eta komisioen konparagarritasunari buruzko azaroaren 24ko 19/2017 Errege Lege Dekretuan eta hura garatzen duen araudian (otsailaren 28ko ECE/228/2019 Agindua) xedatutako prozedurarekin bat.

Informazio gehigarria, finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatuz gero

Emandako informazioaren baliozkotasun-epea

Erakundeak edozein unetan aldatu ahal izango ditu aurretiazko informazio honetan jasotako baldintzak, baina baldintza horiek, ekonomikoak bereziki, ez dira bezeroarentzako eskaintza lotesleak izango, legearen arabera nahitaezkoak diren kasuetan izan ezik. Beraz, aurretiazko informazioan eta kontratuan jasotako baldintzak ez badatoz bat, azken horiek gailenduko dira beti.

Aurrezki-kontuaren fiskalitatea

Espainian bizi direnentzat (lurralde erkidea), sortutako interesak aurrezkiaren zerga-oinarrian sartzen dira, eta hiru zati hauen arabera ordaintzen da:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	19%
6.000,01etik 50.000,00ra arte	21%
De 50.000,01etik aurrera	23%

Euskadin (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) bizi direnentzat:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
2.500,00ra arte	20%
2.500,01etik 10.000,00ra arte	21%
10.000,01etik 15.000,00ra arte	22%
15.000,01etik 30.000,00ra arte	23%
30.000,01etik aurrera	25%

Nafarroan bizi direnentzat:

Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren zatia (€)	Tasa aplikagarria
6.000,00ra arte	20%
6.000,01etik 10.000,00ra arte	22%
10.000,01etik 15.000,00ra arte	24%
15.000,01etik aurrera	26%

Ordaindutako interesari PFEZren % 19ko atxikipena aplikatu zaie lurralde erkidean, Euskadin eta Nafarroan. Territori Comú, Euskadi i Navarra.

Urrutitik kontratazeko-prozesua

Kontratu honetako produktuen kontratazio-prozesua urrutetik egingo da. Kontratazio-modu horren berezitasunen eta eragiketarekin lotutako identifikazio-sistemen mugen ondorioz, prozesu hori produktuaren titularrek edo titularkideek egin beharko dute solidaritate-araubidean, eta, beraz, ez dira onartuko baimenduak, ahaldunak eta ordezkari legalak. Prozesuan zehar bezeroari adieraziko zaizkio, modu argi eta zehatzean, kontratua formalizatzeko jarraitu beharreko izapide guztiak.

Zehazki, hau egin beharko du

1. Aurretiazko informazioa ezagutu eta beharrezko aurrerapenarekin adieraztea, eta haren esku jartzen diren kontratuaren termino eta baldintzak ezagutu eta onartzea.
2. Eskatzen zaion informazioa osatzea.
3. Adostutako baldintzak onartzea, eta, horretarako, kontratua sinatzea

Erakundeak egindako kontratazioari buruzko dokumentazioa gordeko du, eragiketaren egiaztatgiri gisa.

Atzera egiteko eskubidea erabiltzea

Titularrak kontratuetan atzera egin ahalko du horiek sinatu eta hurrengo hamalau eguneko epean. Xede horietarako, sinadura-datatzat jotzen da titularrek kontratuak eta eragiketak sinatu edo formalizatzen dituzten eguna. Atzera egiteko eskubidea, erakundeari jakinarazitako helbide elektronikotik atencionalcliente@wizink.es helbidera bidalitako mezu elektronikoz gauzatu ahal izango da. Data jarrita duen eta dauden titular guztiek sinatu duten dokumentua erantsi beharko da, honako hauek adierazita: izena(k), abizena(k), IFZ eta aurrezki kontratuaren(en) edo produktuaren(en) erreferentzia. Transferitu beharreko saldirik egonez gero, bai eta xede-kontuaren titulartasunaren egiaztatgiri ere. Behin Titularrak atzera eginda, Bankuak egoera lehengoratuko du, kontratua sinatu izan ez balitz bezala; beraz, Bankuak Titularraren eskutik jaso dituen zenbatekoak itzuliko ditu, eta Titularrari ordainduko dizkio bezeroak adierazitako kontuan, atzera egiteko eskubidea erabilita.

Legeria eta jurisdikzio aplikagarriak

Kontratuari eta hartatik eratorritako harremanei Espainiako legeria aplikatuko zaie. Aldeak, foru propioari uko eginez, Titularraren egoitzako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira. Aurrezki-kontuan bezero titular bat baino gehiago badaude, horietako edozeinen egoitzako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena, Erakundeak aukeratuta.

Hizkuntza-araubidea

Kontratuaren informazioa eta baldintzak gaztelaniaz emango dira. Baimena ematen badiguzu, kontratuak irauten duen bitartean gaztelaniaz komunikatuko gara zurekin.

Erreklamatzeko bitartekoei buruzko informazioa

Eskatzaileek eskura dute Bezeroentzako Arreta Zerbitzua, kexak eta erreklamazioak kudeatzeko:

Servicio de Atención al Cliente. WiZink Bank, SAU
Calle Ulises 16-18
28043 (Madrid)
Helbide elektronikoa: reclamaciones@wizink.es

Ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzko kexak eta erreklamazioak ebazteko gehieneko epea 15 egun balioudunekoa da. Erreklamazioa ez bada ordaindu beharreko zerbitzu bati buruzkoa, epea hilabetekoa izango da erreklamatzailea Europar Batasunean bizi den kontsumitzailea bada, eta 2 hilabetekoa Europar Batasunean bizi ez den kontsumitzailea bada edo kontsumitzailea ez bada. Epea igaro eta Bezeroaren Arreta Zerbitzuak ebazpenik eman ez badu, edo erabakiarekin ados ez bazaude, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura jo dezakezu (calle Alcalá, 42-28014 Madrid).